


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2015eko ekainean aurreko hilaren aldean

2014ko ekainaren aldean eraikuntza gastuak %1,1 gutxitu ziren

2015eko ekainean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %-1,1 dugu, EUSTATEN datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,3 gutxitu dira.

Ekainean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, aurreko hilaren aldean. Etxegintzaren atalean %0,3ko jaitsiera, Obra Zibilarenean %0,5ekoa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa eta intentsitate ezberdinak. Etxegintzaren lehengaien kostuak %1,2 merketu ziren, Obra zibilarenak %3,1.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2015eko ekaina 2014koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: *Zurgintza* (%2,0), *Altzarien fabrikazioa* (%1,1), *Metalezko artikulua* (%0,4). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Petrolio-fintzea* (%-17,5); Industria kimikoa, *Ez-metalezko industria* eta *Ez-metalezko mineralak*, denek %-1,7.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO EKAINA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	101,7	-0,3	-1,1	0,2
Eraikinak	101,7	-0,2	-0,9	0,1
Obra zibila	101,7	-0,4	-2,4	0,6
LEHENGAI	100,7	-0,3	-1,5	0,2
Eraikinak	100,7	-0,3	-1,2	0,1
Obra zibila	100,6	-0,5	-3,1	0,8
LAN-ESKUA	105,4	0,0	0,0	0,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)